

ORERETA IKASTOLAKO ESKOLA
KIROLEAN NESKA ETA MUTILEN
PARTAIDETZA NAHASTUA EDO
BANATUA IZATEKO ERABAKIAREN
HAUSNARKETA PROZESUA:



1.- SARRERA eta EKIMENAREN JATORRIA:

Azken urteetan elkarrizketa gai izan da Eskola Kirolean neska eta mutilen arteko partaidetza nahastuarena. Hausnarketa eta gogoetak esparru edo mahai ezberdinetan eman dira: guraso batzordeak, Ikastetxeen zuzendaritza mahaiak, Eskola Kiroleko antolamendu organoak, Udalak...bakoitzak bere bide propioa egin eta konklusio zein erabaki ezberdinak atera eta hartu dituelarik.

Orereta Ikastolaren kasuan ere gaiaren inguruko kezka piztu zen, batez ere honako galdera honi lotuta:

- *Zergatik Orereta Ikastolan ez ditugu talde mistoak?*

Gaia edo kezka leku ezberdinetan atera zenez, hau Hezkuntza Batzordean lantzea erabaki genuen, bertatik erabaki proposamen bat ateratzearen konpromisoa hartu zelarik. 2018-19 ikasturterako, gaiaren inguruan sakonki hausnartzea erabaki genuen, honetarako azpi batzorde propio baten sorrera ahalbidetuko zelarik. Gauzak horrela, ikasturte berriaren hasierarekin, Orereta Ikastolako Zuzendari Pedagogikoa, Eskola Kiroleko Koordinatzailea eta Eskola Kirolean aholkularitza ematen digun KirolAisi Elkarteko Udal teknikariarekin prozesuari forma ematen hasi ginen.

Jarraian aurkezten den txosten honetan, gaiaren inguruan egin den lanketa osoaren laburpen bat aurkeztu nahi dugu, batez ere hartzen diren erabaki eta estrategien justifikazioan sakonduz eta helburu nagusia honekin:

Ikastolak Eskola Kiroleko talde mistoen inguruko diskurtso sendo, hausnartu eta justifikatua duela adieraztea, bertan atera diren konklusioak agente ezberdinen iritzia kontuan hartuta eta behar izan den aholkularitza tekniko jaso ondoren atera baitira.

2.- LEHEN PAUSUAK:

Batzorde formalaren bilerekin hasi baino lehen, Eskola Kiroleko koordinatzaileak aurre lanketa bat gauzatu zuen:

2.1 Eskola Kiroleko lan taldearen iritzia:

Lehenik eta behin, Eskola Kiroleko lan taldean (2018-19ko hezitzaile taldea) gaia eztabaidatu genuen, jarraian bertan jasotako iritzia laburtzen ditugularik:

- Orokorrean gehiengo talde mixtoen aldekoa da, baina **Nola?** Galderan ikusten dugu guztiaren gakoa. Prozesu luzea dela uste dugu, oso hausnartua eta aurre suposatzen diren rolen haustura natural bat ekarri behar duena. Neska eta mutilek normalizat eta gustuz hartu behar dute jarduera fisikoa batera egitea, eta egun gizartean orokorrean eta Eskola Kirolean partikularki zoritxarrez ez dugu egoera hau.

- Egun dugun eredu berriak denbora gehiago behar du bere fruituak emateko: Gure ereduarekin, astean zehar sarritan nahasten ditugu neska eta mutilak, nahiz larunbatetako jardunaldietara begira bakoitzak bere taldea duen. Honek neskek bere eremu babestua izatea ahalbidetzen du, une askotan oso eroso eta ahaldun sentitzen direlarik. Ikerketek adierazten digute, zoritxarrez mutilekin sarritan ez dutela horrela sentitzeko aukerarik. *“Ohitzen baditugu funtziona dezake”*- diote hezitzaile batzuk ordea.
- *“Eskola Kirolak gizartean isla izan nahi badu, hau aldatzen saiatu behar dugu ahal duguna egiten. GHen ondo funtzionatzen badu, zergatik Eskola Kirolean ez?”*
- Erabakia hartzen bada hasierak gogorrak izango dira, baina epe luzerako zerbait izan behar du, erabaki estrategiko bat hain zuzen ere.
- Hezitzaileek formakuntza sakon bat beharko dute.
- Nesken parte hartzearen jaitsiera da arriskueta bat, inguruko esperientziek hala adierazi dutelako; prest gaude hau onartzeko? Zorionez nesken perfil oso anitza dugu, askok ez lukete partaidetza nahastua nahiko. Baina Eskola Kirolean aniztasun hau mutiletan ere ematen dela argi dugu, *“denak ez dira kirolari sutsu edo kirolzale amorratuak”*.
- Prozesu baten ostean LH3tik hasi eta igotzen joan? Aukera gisa planteatu da era progresiboan egitea frogak, benjaminetan nahasten ditugunean esperientziak aberasgarriagoak baitira.
- *“Orokorrean hastean zehar saio mixtoak hobeto doaz, hobeto egiten da lan”*. Mutil batzuen jarrerak baretzeko joera ematen da, hezitzaileek erosoago lan egitea ahalbidetuz.
- *“Saiakera ondo dago, baina kirolaren munduak goizago edo beranduago bereizketa dakar, goiko kategorietan (Eskola Kirola ostean) ere hausnarketa hau al dago?”*

2.2 Oarsoaldeko Ikastetxeen esperientzien bilketa:

Udaleko Eskola Kiroleko teknikari den Xabi Rodriguezekin gaia landu ostean, interesgarri ikusi genuen inguruko esperientzien bilketa bat egitea. Jakin bagenekien, beste ikastetxeetan talde mistoen inguruko hausnarketa prozesuak eginak zirela eta hauek ezagutzea oso aberasgarria izan zitekeela pentsatu genuen. Horretarako galdetegi txiki bat pasa zitzaion (*1. Eranskina*) Oarsoaldeko Ikastetxeetako koordinatzaileei, hemen laburtzen dugularik bertatik jasotakoaren laburpena:

- Ikastetxe gehienetan talde mixtoak barne antolaketa arrazoiengatik (eta ez erabaki estrategiko gisa) sortu dira. Ikastolan ez bezala, Ikastetxe batzuk ezin dituzte sexu eta kategoria bakoitzeko taldeak sortu, eta orduan, ikasturteka nahastea erabakitzen da. Badaude kasuak ere non neskek nahiago duten gela edo kurtso mutilekin nahastu, beste ikasturteko neskekin egitea baino.
- Esperientzia oso ezberdinak izan direla diote. *“Batuetan oso ondo atera da, beste batuetan ez horren ondo”*.
- Kopuruekin duten egoera ikusita ikastetxe batzuk eskaintza bera mixto gisa aurkezten dute izen ematea egiteko orduan. Ondorioz naturalizat ematen da Eskola Kirola mistoa izatea eta orokorrean koordinatzaileak gustura daude esperientziarekin.

- Aukera dagoenean neskek, nesken taldea sortzeko eskaerak ere egon dira nesken aldetik, kasu hauetan Ikastetxeek eskaera onartzeko joera dutelarik.
- Ikastetxe baten esperientzian oinarritua *“talde mistoak sendo eta politenak”* izan ohi dira. Kasu honetan izen ematea asteko egunen baitan egiten dute, ondoren taldeak honen baitan antolatzen direlarik (sexua aldagai bereizgarria izan gabe). Neskak eskaera egiten badute ordea, normalean nesken taldeak sortzeko saiakera egiten dute. Irizpide zehatzik ez, irekiak baizik.
- Beste Ikastetxe batean ere talde mixtoen gogoetarekin jarri dira, baina gaia txikitatik lantzen hasi behar dela diote. Proiektu berri bat dute martxan HH2tik LH1era, ondoren *Muittu* ekimena (LH2) eta ondoren Eskola Kirola (LH3-6). Momentuz mistorik ez, baina prozesuaren ondorio bai ikusten dute, LH3 arteko kirol eskaintza guztia mistoa baita.
- Beste ikastetxe batzuk ez dituzte talde mixtoak eta momentuz horrela jarraitzeko asmoa adierazi dute.

3.- GAIA LANTZEKO BATZORDEAREN SORRERA eta KRONOGRAMA:

Zuzendaritzan argi genuen hasieratik batzordean agente ezberdinen ordezkariak egon behar zela, baina beti ere gaian esperientzia edo adituak diren erreferenteen presentzia bermatuz. Hau dena kontuan izanda honela gelditu zen formalki batzordea:

- HHko guraso ordezkaria: **Jokin Agirre**. 2 alaben guraso eta KirolAisi elkarteko kide, urteetako esperientzia duena Oarsoaldeko Eskola Kirolean, bai hezitzaile bezala, bai eta koordinatzaile lanetan.

- LHko guraso ordezkaria: **Ainara Gartzia**. Bere 2 seme alabak LHen daude, zaharrenak bere Eskola Kiroleko ibilbidea hasi berria duelarik. Gaiaren inguruko kezka eta sentsibilizazio handia adierazi du betidanik.

- DBHko guraso ordezkaria: **Maidor Gezala**. Eskola Kiroleko programan parte hartu duten 2 alaben ama izateaz gain, Ikastolako Artezkaritza Kontseiluko kide eta gaiarekiko aurre ezagutzak dituena, hurbileko esperientziak ezagutzen dituelarik.

- LHko Gorputz Hezkuntzako irakaslea: **Jone Briñas**.

- DBHko Gorputz Hezkuntzako irakaslea: **Unai Briñas**.

- Eskola Kiroleko 2 hezitzaile: **Maialen Pescador** eta **Aitor Zubeldia**.

- Eskola Kiroleko koordinatzailea: **Unai Esnal**.

- Eskola Kiroleko Udai Teknikaria: **Xabi Rodriguez**.

- Avento Kontsultoriako kanpo aholkularia: **Ainhoa Azurmendi**. Psikologian doktore, kirol psikologian aditu eta aztergai dugun gaiaren inguruan esperientzia eta ezagutza handiak dituena.

- Batzordekideez gain bileretara Zuzendaritzako kide bat etorri da prozesuaren jarraipena egin eta bileren akten jasotzean laguntzea.

Batzordearen kronogramari dagokionean, 3 bilera egitea aurreikusi zen:

1.- Taldea osatuzat eman, helburu nagusia zehaztu eta prozedura osoa elkar erabaki. Bilera honetarako oinarritzko bibliografia bat, inguruko esperientzien laburpen bat, Orereta Ikastolaren hausnarketa txostena eta Eskola Kiroleko Helburuak (IKPan eta Dekretuan jasoak daudenak) aurkeztuko dira. Batzordekideek ondoren etxean lasai irakur ditzaten. Hauek DRIVE bidez partekatu dira. **Lehen bilera hau urtarrilaren 17an gauzatu zen.**

2.- HAUSNARKETA SAIOA: Ainhoa Azurmendiren aholkularitzarekin eztabaida gidoi bat prestatuko dugu gaiaren inguruan eta eztabaida ireki formatuan sakonki hausnartzeko. Honetarako aurretik aurkezturiko dokumentazio guztia ere hartuko da kontuan. ****Bilera honetara *Egoitz Verdugo Zuzendari Pedagogikoa* bertaratuko da, era neutral batean saioa pixka bat bideratu eta akta jasotzeko asmoz. *Ainhoa Azurmendi* ere bilera honetan sartuko litzateke; bere esperientzian oinarrituz saioa dinamizatu, batzordekideak “xixatu” eta bere iritzia eman ahal izateko. Bigarren bilera urtarrilaren 30ean gauzatu zen.**

3.- HAUSNARKETA AMAITU eta PROPOSAMENA PLANTEATU: Hausnarketa saioaren sintesi batekin hasiko dugu bilera, ondoren proposamena beraren inguruan eztabaidatzeko. Lehen bileretan helburua finkatua izango dugu eta azken honetan estrategietan zentratuko gara, etorkizuneko erronketan eta epe labur, ertain eta luzerako ekintzetan. Bilera honetan ere ***Ainhoa Azurmendi*** ren aholkularitza izango dugu, saioa berak dinamizatuko duelarik. **Hirugarren eta azken bilera otsailaren 13an gauzatu zen.**

4.- IKASTOLAKO EGOERA

4.1 Ardatz eta helburuak

Puntu honetan, batzordean erabili den informazio txostenaren laburpen bat egingo dugu. Bertan azaltzen diren datuetan oinarritua egin da gogoeta prozesua, beraz txosten hau hobeto ulertzeko ezinbestekoa da txostenaren sintesia egitea.

2017an itxi genuen Ikastetxeko Kirol Proiektuan, Eskola Kirolak izan beharreko xedea zehaztu zen:

“Gure ikasleentzako kirol eskaintza sustatu, erraztu eta antolatu, kirol ohiturak sortzeko, ikasleei kirol jardueran dauden aukerak eskaintzeko eta hezkuntza-garapena osatzeko.”

Helburu orokorren artean, 2. Puntuan “Elkarbizitzari” aipamen zuzena egiten zaio, hainbat aspekturen artean *emakumezko eta gizonetzako arteko berdintasuna* aipatzen delarik. Gogoetan sakonago aztertuko dugu “berdintasunaren” kontzeptua, baina abiapuntuzat, argi dago gure Eskola Kirolaren ardatzetako bat dela.

Eskola Kiroleko beste ardatz nagusiei dagokionean, bai IKPak, bai eta Gipuzkoak Eskola Kirola arautzen duen Dekretuak honakoak goraipatzen dituzte:

- Hezitzailea eta Jarduera Fisiko eta Kirolak sustatu ditzakeen balio positiboetan oinarriturikoa
- Izaera ludikoa duena
- Kirol Aniztasunean oinarritzen dena
- Haurren Jarduera Fisikoarekiko atxikimendua lortzeko jomuga duena

4.2 Eskola Kirola Oarsoaldean: Parte Hartze datuak

Talde eragilea Eskola Kiroleko talde mistoen inguruan eztabaidatzeko sortu genuen, baina eztabaida hori zertarako edo zein helbururekin egiten zen finkatu beharra genuen hasieratik. Aspektu honetan, jakin bagenekien, antzerako zenbait prozesu nesken parte hartzea igotzeko helburuarekin hasi zirela. Gure kasuan argi izan genuen lehen bileratik hausnarketa edo eztabaidak haratago joan behar zuela, baina honetarako gure datuen inguruan hausnartu behar genuen:

Jarraian aurkezten ditugu Batzordean erabili genituen datu kuantitatiboak, 5. Puntuan aterako diren hainbat ideien abiapuntu izan zirenak:

ORERETA IKASTOLAKO PARTAIDETZA DATUEN BILAKAERA:



	OROKORRA					
	MATRIKULATUAK		ESKOLA KIROLA		EHUNEKOAK	
	NESKA	MUTILA	NESKA	MUTILA	NESKA	MUTILA
2018/2019	188	201	111	165	59	82
2017/2018	193	198	129	151	67	76
2016/2017	178	216	133	173	75	80
2015/2016	193	202	133	172	69	85
2014/2015	190	201	137	172	72	86
2013/2014	184	194	116	175	63	90

Orereta Ikastolan, ikasle sedentarioak Eskola Kirolako adin tartean:

- 2016-17 ikasturtean: 14 (7 neska eta 7 mutil).
- 2017-18 ikasturtean: 20 (11 neska eta 9 mutil).

Hau da, oso gutxi dira jarduera fisikorik egiten ez dutenak. Sailkapen honetan gainera, gutxienez asteen 3 saio egiten ez dituztenak sartu ditugu, hau da, guztiz sedentarioak ez diren neska mutilak ere egon daitezke datu horietan.

ERRETERIA eta OARSOALDEKO PARTAIDETZA DATUAK:



5.- BATZORDEAREN BILERAKO GOGOETAK:

Batzordea sortu genuenetik, Eskola Kiroleko koordinatzaileak argi zuen erronketako bat gaia zentratzearen zailtasunean zegoela. Talde mistoak, berdintasuna, hezkidetzaz, parekidetasuna... bezalako kontzeptuak oso zabalak dira eta eztabaida irekiko guneetan ate asko irekitzeko joera izan ohi dute, sarritan gaiarekin lotura zuzena izan ez dutenak. Ainhoa Azurmendi aholkulariak eta Eskola Kiroleko koordinatzaileak gaia zentratzeko saiakera handiak egin arren, gauzatu diren 3 bileretan ideia ugari piltzeko aukera izan dugu Honetaz gain, bilera bakoitzak helburu zehatz bat izan bazuen ere, ideia asko etengabe errepikatu dira; beraz 5. puntu honen helburua ideia guzti hauen laburpena egitea da:

5.1 Batzordearen abiapuntu eta helburua; zergatik eta zertarako nahi ditugu talde mistoak?

Batzordeko eztabaida sarritan parte hartze misto eta banatuaren arteko konparaketan zentratu da, bata eta bestearen alde positibo eta negatiboak aipatuz; baina lan taldean hasieratik argi ikusi genuen eztabaida eta hausnarketa helburu baten baitan egin behar zela, hau da:

Zein da egun dugun Eskola Kiroleko eredia eta zergatik aldatu nahi dugu?

Inguruan izan ditugun hainbat esperientzietan, parte hartzea mistoa izatearen erabakia “nesken parte hartzea igotzeko helburuaren” izenean egin dela ikusi dugu. Ideia hau abiapuntutzat hartuta, gure datu kuantitatiboan bilakaera aztertzeari ekin genion: Nesken datuak, Ikastolako mutilen parte hartzearekin alderatzen baditugu, datuak baxuagoa izanagatik ere, argi ikus daiteke nola Orereta Ikastolako nesken parte hartzea Oarsoaldeko batz bestekoen oso gaineratik dagoen. Azken 5 urteetan Oarsoaldean nesken parte hartzea ez da %40ra iritsi, Ikastolan epe berdinean %59 eta %75 artean kokatzen delarik. Datu hauei gainera, batzordean ateratako analisi kualitatiboa gehitu behar diogu: nesken kasuan, legez “derrigorrez” (Foru Aldundiaren dekretuak hala diolako) egin behar dutenen kasuak gutxiago dira mutilekin alderatzen baditugu, honekin ondorioztatuz, neska askoren kasuan Eskola Kirola egitea haien hautua dela, nahi dutelako egiten dute: honek datuak hobek izatea suposatzen du.

Batzordean behin eta berriro komentatu dugu Orereta Ikastolan historikoki kirolarekiko atxikimendu altua egon dela. Beraz, hasieratik argi utzi genuen helburuak ez zirela parte hartzearen igotzearekin lotuko, batetik beharrezkoa ikusten ez genuelako eta bestetik parte hartzearen kalitateaz ari ginelako, ez kopuruaz.

Eztabaida eta hausnarketaren helburua Ikastolaren helburu estrategikoen baitan egin behar zela argi genuen; eta honen harira hau da batzordeari jarri genion helburu zehatza:

Ikastolako Eskola Kirolak izan duen bilakaera eta egun duen eredia aztertuz, eta parte hartzea misto eta banatuaren alde positibo eta negatiboan inguruan hausnartu ondoren, balio hezitzaileetan oinarrituriko kalitatezko Eskola Kirol hezkidetzaille sendo bat sortzeko epe motz, ertain eta luzerako erabakiak hartzea.

5.2 Zer da “talde mistoa”? Kontzeptuaren inguruan hausnartuz

Normalean, talde mistoek hitz egiten dugunean, neska eta mutil kopuru antzekoa duten taldeez ari garela esan daiteke, izan ere Oarsoaldean talde mistoen barruan kasuistika ezberdin ugari ezagutu ditugu: Kopuru arrazoiak direla eta mutilen taldeetan jolasten duten neskek (1-2 neska), familia antolaketa kontuengatik mutilekin jolasten duen neska (bikien kasuan adibidez) edo ikastetxeak harturiko erabaki estrategiko baten ondorioz egiten diren benetako taldekatze mistoak izan daitezke 3 kasu erreal.

Oarsoaldeko Ikastetxeei galdeketa pasa genienan askok komentatu ziguten arrazoi nagusia taldeen antolaketa aspektuetan dagoela. Hau da, nesken taldeak sortzeko dauden zailtasunak direla medio, mutilekin nahastu behar izaten dituztela. Egoera hauetan, normalean neskek izan ohi dira mutilen

taldeetan txertatu behar izaten direnak, hau da, talde mistoak ulertzeko daukagun modurengatik, ez da talde misto bat sortzen bere horretan. Egia da ere, zenbait kasuetan abiapuntua hau izan da ere, esperientzia oso positiboak goraiatu dituztela Ikastetxe batzuetako koordinatzaileek. Kasu hauetan, neska batzuen hitzetan: *“nahiago dugu gure ikasturteko mutilekin jokatu urte bat zaharragoak diren neskekin baino”*.

Haurrak dituen gaitasunak kontuan hartuta, mutilen taldeetan aritu diren neska trebeen esperientziak ere ezagutu ditugu. Puntu honetan, bileretan argi utzi da eztabaida hau sexuetatik haratago doan eztabaida bat dela, izan ere, argi dugu trebezia edo gaitasunen baitan, Eskola Kirolaren egitura edo sistemaren barruan eroso sentitzen ez diren neska edo mutilak egon badaudela: entrenamendu motak, lehiaren garrantziak... Gure helburua ahal den neurrian hau ekiditea den harren, batzuetan trebe eta ez horren trebeen arteko bereizketa oso agerian gelditzen dela badakigu.

Kasu batzuetan, mutilen taldeetan txertatzen diren neskak, normalean mutilekin jolasean aritzen diren horiek izan ohi dira, *“las supervivientes de los patios”* delakoak. Neska hauek, mutilezkoen jarrera, rol eta estereotipoetan sartzeko joera dute eta guk Ikastolan lanketa neska guztien beharretan zentratu nahi dugu: Nolako Eskola Kirola nahi dute gure neskek? Ikastolak dituen helburu eta lehentasunen baitan, nola lortu nesken atxikimendu edo erosotasuna Eskola Kirolean? Eta Nola egin Eskola Kirola hezkidetzailleago bat?

Puntu honetan, Ikastolako guraso batek bere alabaren esperientzia partekatu zuen: Urte berean Eskola Kiroleko programan egoteaz gain, herriko futbol talde batean aritu zena eta bi kasutan neska eta mutilek batera entrenatzen zutena. Eskola Kiroleko koordinatzailearen hitzetan *“oso esperientzi aberasgarria izan zen urte horretan LH6ko neska mutilak astean zehar batera entrenatzen ikustea. Eskola Kirolean batera aritzearen erabakia modu hausnartu eta intenzionatuan egin genuen, 20 neska eta 11 mutil zirelako eta honek nesken ahalduzko asko laguntzen zuelako”*. Neskek jabeakuntza prozesu oso sendoa egin zuten eta egoera oso interesgarriak ikusteko aukera izan genuen. Herriko futbol taldeari dagokionean berriz, guraso honek honakoa komentatzen du:

“Mutilekin entrenatzen zuten eta soilik 2 neska zirenez, berak saioetan argi ikusten zuen hauek txikitu egiten zirela”.

Esaldi hau erabat bat dator Ainhoa Azurmendi Aventoko aholkulariak ematen dituen argudioekin:

“Badaude ikerketak non argi adierazten den talde mistoetan ematen den rol banaketen ondorioz, lidergoa eta protagonismoa mutilena izan ohi dela”. Adibide gisa dugu 2017ko ekainean Ainhoa Azurmendik argitaratu zuen *Eskola Kirolean neska-mutilen partaidetza mistoa edo banatua: datuetan oinarritutako proposamena* ikerketa. Ikerketa hau Hernani eta Pasaiko Udalek sustatu zuten, gaiarekin inguruan erabaki hausnartu eta argudiatuak hartzeko helburuarekin.

Puntu honetan Jokin Agirrek, Oiartzungo Eskola Kiroleko Teknikariak bere esperientzian oinarrituriko argudioak partekatzen ditu:

“Partaidetza mistoa erabaki estrategiko gisa hartu den lekutan, hau da era masiboan taldekatze mistoak egin diren tokitan, ez du esperientzia positiborik ezagutu bere lan ibilbidean, bai ordea honen ondorioz nesken kirol uzte nabaria eman den kasuak”.

5.3 Egun, Eskola Kirolean Orereta Ikastolan dugun errealitatea:

Aurreko puntuko gogoetarekin jarraituz, aipatu nahi da, Ikastolan, 2 urte direla gaia era kontziente batean lantzen hasi ginela Eskola Kiroleko lan taldean. Horregatik galdetzen diogu berriro gure buruari? *Noiz deitzen zaio "misto" talde bateri?*

Ikastolan astean zehar sarritan neska eta mutilak batera aritzen dira saioetan, baina hau beti hausnarketa baten ondorio izan ohi da: *Zer moduz funtzionatu du talde honetan? Zer pasatzen da ikasturte honekin? Zergatik batzuekin ondo eta besteekin ez?* Hezitzaile bakoitzak bere esperientzia, tresna, saio eta jolasak partekatzen ditu, denon artean hausnartu eta elkar elikatzeko.

Honetaz gain, larunbateko saio askotan ere neska eta mutilak batera aritu dira, izan ere Oarsoaldean dugun Eskola Kiroleko ereduari esker, hau modu erraz eta eraginkor batean egin daiteke. Egia da 3 kirol nagusietan (eskubaloia, futbola eta saskibaloia) parte hartzea banatua dela, baina benetan uste dugulako hau ere beharrezkoa dela. Hau dena kontuan izanda, larunbatetako jardunaldi batzuetan parte hartzea banatua delako baieztatu daiteke Orereta Ikastolan parte hartzea ez dela mistoa? Astean zeharreko saio guztiak eta jardunaldi berezi guztietan neska eta mutilak batera aritzen den talde baten kasuan adibidez, baieztapenak indarra galtzen duela uste dugu. Beste albo batean, baditugu taldeak ere urteko zati gehiena parte hartze sakabanatuan egiten dutenak, baina hau egitearen arrazoiak atzean Eskola Kirolean ditugun xede eta helburuak daude beti (goian aipatu direnak).

Eskola Kirolean, talde edo belaunaldi bakoitza mundu bat den arren, Eskola Kiroleko lan taldean parte hartze mistoaren inguruan hausnartzean sarritan atera da adinaren aldaera:

Ikastolaren esperientzian oinarrituz, normalean Eskola Kirolean lehen urteetan dauden neska mutilekin (LH3 eta LH4), esperientzi hobekak izan ditugu. Egia da alebin batzuen kasuan ere (LH5 eta LH6) esperientzia oso aberasgarriak izan ditugula, baina hau ez da ohiko joera izan. Puntu honetan Ainhoa Azurmendik aipatzen du honen arrazoi nagusia genero identitatearen garatzearekin dagoela lotua, izan ere *"adinean aurrera joan ahala sexu arteko bereizketa naturala sendotzen doa"*. Prozesu guzti honetan neska eta mutil bakoitzaren garapen fisiko, emozional eta hazkuntza prozesuak bere biziko garrantzia du. Guzti honengatik izan daiteke errazagoa gaztetxoekin talde mistoetan lan egitea.

Eskola Kiroleko lan taldean eztabaida hau plazaratu zenean, neska mutilen ohiturek ere zer esan handia dutela azpimarratu zen:

Duela 2 urte arte Ikastolan ez genuen gaia era kontziente batean lantzen eta ondorioz "normaltzat" jotzen zen Eskola Kiroleko parte hartzea bereiztua izatea, bai astean zehar, bai eta larunbatetako jardunaldietan. Honen ondorioz, belaunaldi asko Eskola Kiroleko eredu honetatik pasa dira, haiek "normaltzat" hartuz neskak neskekin aritu behar zirela eta mutilak mutilekin. Hezitzaile batzuen ustetan, lanketa sakon bat eginez eta urteen poderioz guzti honi buelta emateko aukera dago, pixkanaka parte hartze mistoari nolabaiteko normaltasuna eman ahal izateko. Neska mutilei, LH3tik parte hartze mistoa aukera gisa planteatuz uste da, LH6en ere taldeen nahasteak arrakasta izan dezakeela. Oarsoaldeko Ikastetxeren batek ere ideia bera azaldu zuen bere galdetegian, haien gaiarekiko lanketa hemendik bideratzeko asmoa dutela aipatuz, baina prozesuari HHTik Eskola Kiroleko urteetaraino jarraikotasun koherente bat emanez.

5.4 Zein da kirolak gizartean duen errealitatea? Kirol modalitate edo jarduerak zer esana al du guzti honetan?

Puntu honetan, argi utzi nahi dugu Batzordea partaidetza mistoaren alde ere azaldu dela, baina aitortuz zoritxarrez egun, gizartean ez direla oraindik baldintza egokiak ematen hau era arrakastatsuan gauzatu ahal izateko. Batzordea osatu duten kideek berdintasuna eta hezkidetzaren alde egin nahi dute Eskola Kirolean, baina hauen ustez, egun hau lortzeko estrategikoki talde mistoak gauzatzea ez da estrategia aproposena.

Kirol modalitate eta jardueri dagokionean, Batzordean Eskola Kirolean urte askotan lanean aritu diren hainbat agente izan dira eta hauen hitzetan: *“Hezkidetzaren printzipioak lantzen hasteko, badaude generoaren ikuspegitik horren markatuak ez dauden kirol edo jarduera neutroagoak”*. Denon ustez, lanketa zailagoa da taldekako kirol tradizionalan (saskibaloia, futbola eta eskubaloia). Zorionez egun, Oarsoaldean dugun Eskola Kiroleko ereduak jardueren aniztasuna bermatzen du, honela neska eta mutilen arteko partaidetza modu naturalagoan errazago ematea ahalbidetuz. Adibide bat jartzearen, ez da berdina saskibaloiko partida batean batera aritzea edo arrauneko traineru batean; ez da gauza bera futboleko partidu bat batera jokatzeko edo parte hartzea bermatu nahi duen arauak dituen Colpbol kirolean batera jolastea.

6.- ERABAKI PROPOSAMENA eta ARGUDIOEN LABURPENA:

Goian aipaturiko eztabaida puntuetan oinarriturik, batzordeak honako proposamena egiten dio Hezkuntza Batzordeari, gaiaren inguruko behin betiko erabakia har dezan:

Eskola Kirolean bereziki eta Ikastola mailan era orokorrean hezkidetzaren inguruko lanketa bat hasi beharra dago, baina epe labur-ertainera eta erabaki estrategiko gisa ez da aholkatzen partaidetza mixtoa eskaintzea, hau da, Eskola Kiroleko izen ematean aukera hori eskaintzea.

Batzordearen itxierarekin ordea fase baten itxiera besterik ez da ematen, kontuan hartu behar baitugu hartzen diren erabaki guztiak errebisagarriak izan behar dutela: Erabaki eta lanketak errebisatu, hauen inguruan hausnartu eta beharra ikusten bada moldaketak egin eta erabaki berriak hartu.

Jarraian laburbiltzen dira erabakia hartzeko kontuan hartu diren argudio ezberdinak:

- Talde mixtoak dituzten Ikastetxeen esperientziak jasota, batzarrak argi du, era masiboan eta erabaki estrategiko gisa egin denean, ondorio zuzenetako bat nesken parte hartzearen jaitsiera izan dela. Gure kasuan, ditugun kopuruak ikusita eta nesken parte hartze datuak ikusita, egun “galtzeko asko” dugula baloratu da, batez ere neskek Eskola Kirola gustura egiten dutela ulertzen dugulako.
- Talde mixtoak eta berdintasuna edo hezkidetzak lantzea ez dira gauza bera: Talde mixtoak estrategikoki eskainiz gero neska batzuei kirolarekiko esperientzia ez horren atseginak eskaintzeko arriskua dago. Ikastolan aukera berdintasuna bermatu da eta bermatuko da beti, baina hau ez da partaidetza mixtoaren kontzeptuarekin nahastu behar.

- Talde mistoetan eman ohi den rol banaketa: Hainbat ikerketek adierazi digute, lidergoa, protagonismoa... bezalako rola ehuneko altu batean mutilek hartzen dituztela, neskek nolabait "txikitu" egiten direlarik. Hau oso kirolariak diren neskekin ere ematen dela ikusi dugunez, horren kirolariak ez diren kasuan areagotu egiten dela uste dugu,

- Neska mutilen perfil aniztasuna: Ditugun parte hartze datu altuak direla eta (nesken %67 eta mutilen %83 azken 6 urtetan) argi dugu kirolarien perfil oso anitza dugula Eskola Kirolean. Taldekako kirol tradizionalak pisu handia dute oraindik egungo ereduak, bai astean zehar bai eta larunbatetako jardunaldietan, hauetan zailagoa delarik talde mistoen arrakasta bermatzea.

- Ikastolan egun ere talde mistoekin gabiltza lanean: Ikastolan duela 2 urte gaiaren lanketa hasi genuen, astean zehar eta larunbatetan sarritan parte hartzea nahastua izaten delarik. Hau beti era hausnartuan egin dugu, alde positibo eta negatiboak aztertuz, arrakasta egoerak errepikatuz eta horren ondo atera ez diren esperientziak baztertuz. Duela 2 urte hasitako lanketari bere bidea egiten utzi behar zaiola uste dugu.

7.- ETORKIZUNEN LAN ILDOAK:

7.1 Arrakastarako gakoak:

A: NESKEN AHALDUNTZEA: Kirolean taldearekiko atxikimendua, inplikazioa, taldearen parte sentitzea... honek guztiak haien esfortzu eta kirolean aritzeko nahia areagotzen ditu eta hau ikustea oso aberasgarria da. Neskei, berezko duten botere hori goraiatu behar diegu, kirolarekiko esperientzia aberasgarriak izaten lagundu, eta hau guztia errazagoa da parte hartze banatua duten taldeetan.

B: HEZKIDETZA MODU INTENTZIONALEAN LANTZEA: Gure egunerokotasunean, saio eta partiduetan gaia plano kontzientera ekarri behar dugu, une oro presente izaten saiatu:

- Ematen ditugun mezuetan
- Espazioen banaketan
- Taldekatzeak egiteko orduan ditugun irizpideetan
- Material eta ardurak banatzeko orduan
- (...)

Alerta egoera konstante bat da, gauza batzuk ez ditugu pasatzen utzi behar: Espazioen banaketa "modu librean" egiten denean adibidez, espazio zentralen okupazioa mutilen esku uztea izan daiteke guzti honen adibide praktiko bat. Esparru honetan lan handia dugu oraindik.

C: NESKENTZAT EREDU eta ERREFERENTEAK: Hezitzaileak, kirolariak, hedabideetako erreferenteak... neskek haien kirol ibilbidean estimuluak behar dituzte, kiroleko esparru ezberdinetan etorkizun oparo bat izan dezaketela transmititzen duten ereduak alegia.

D: HEZKUNTZA PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTEN AGENTE HEZITZAILE GUZTIEN INPLIKAZIOA: Helburu nagusia Eskola Kirola hezitzaileago bat sortzea bada, ezinbestekoa da haurren heziketa prozesuan dauden bestelako erreferente guztien inplikazioa. Agente hezitzaile guzti hauek nahita edo nahi gabe, haiek bizitakoa erreproduzitzeko joera dute, beraz ezinbestekoa da hauek ere hezkidetzaren fisikoaren oinarri batzuk barneratu eta haurtzat benetan eredugarri izatea. Orain arte izandako ereduak hautsi edo kolokan jarri behar dira.

7.2 Etorkizuneko lan ildoak:

Batzordearen hirugarren eta azken bileran etorkizuneko erronken inguruan hausnartu genuen. Bertan Ainhoa Azurmendi Aventoko aholkulariak argi adierazi zuen “*prozesua dagoeneko martxan dagoela eta orain ez dagoela presarik, lanean gaude eta orain gauzak lasai eta ondo egin behar dira*”.

Talde txikitik lan ildo edo estrategia ezberdinen zerrenda egin genuen, hauek lehentasunen arabera sailkatu genituelarik. Ekintza batzuk berehala martxan jartzekoak dira, beste batzuk ordea lanketa sakonago bat eskatzen dute, pixkanaka gauzatu beharko direnak:

- **Helburuen zehaztea:** Lehen erabakia hartuta lanketarekin nola jarraitu nahi den zehaztu behar da, zein helburu izango ditugun eta noiz bete nahi ditugun. Puntu hau garrantzitsua da prozesua denboran zehar presente izan dezagun.
- **Hezkidetzaren gaia plano kontzienterik ekarri:** Puntu hau dagoeneko jarri dugu martxan, asteroko Eskola Kiroleko bileretan denbora tarte bat hezkidetzaren gaiari eskaintzen diogularik: Zer behatu dugu saioetan? Zer eta nola egin genezake hezkidetzaren lantzeko? Noiz landu genezake helburu hau ala bestea?...
- **Hezitzaileen etengabeko prestaketa:** Lan taldea Hezkidetzaren Fisikoan formatu behar da, egunerokotasunerako tresnak emateko eta hauek erabiltzen laguntzeko. Puntu honetan 3 lan esparru ezberdin zabaltzen zaizkigu, batzuk dagoeneko martxan jarri direlarik:

1.- Eskola Kiroleko programa aurrera eramatearen ardura duen Foru Aldundiari formazio eskaera hau luzatu.

2.- Oarsoaldeko Eskola Kiroleko programa bailara mailan aurrera eramaten duen Kirola Aisi elkartearen bitartez gaiaren inguruan formatzeko dauden aukeren inguruan hausnartu.

3.- Orereta Ikastolak, bere barne formazio planean Hezkidetzaren Fisikoaren gaia txertatzea.

- **Prozesuan ikaslea ardatz:** Ezinbestekoa da Ikastolak Eskola Kirolean dauden neska mutilen iritzia jasotzea, honetarako dinamika erraz batzuk gauzatzea proposatzen delarik. Hauek denboran zehar eta modu estrategikoan egin beharko dira, belaunaldi ezberdinen iritziak jaso eta ondoren hauen inguruan hausnartu eta erabakiak hartzeko.
- **Saioen plangintza proposamen bat:** Orain arte saioetan zehar talde mixtoen lanketa egin den arren, hau nahiko modu espontaneoan egin izan da, inizatiba edo ardura hezitzaile bakoitzaren esku utziz. Ekintza honekin, lanketa protokolizatzea da helburua, hau da argi identifikatzea zein une

diren aproposak partaidetza nahastua edo banatua egiteko eta zergatik; modu honetan hezitzaile guztiek argi izango baitute noiz eta nola egin behar dituzten gauzak.

- **Prozesua IKPan erregistratu:** Azkenik, ezinbestekoa da orain arte egin den lana eta etorkizunean egingo dena Ikastetxeko Kirol Proiektuan islatzen joatea. Etorkizunean Eskola Kiroleko lan taldean aldaketarik egongo balitz, lan talde berriak egin dena eta egin behar dena argi izan dezan.
- **Batzordean ateratako hausnarketak Ikastolako esparru guztietara zabaltzea:** Ezinbestekoa ikusten da hezkidetzaren gaia beste esparru batzuetara eramatea: Hezkuntza formala, ikasturte amaierako bidaiak, jolasgaraien kudeaketa, espazioen diseinu eta antolaketa...

Azkenik, prozesua honako esaldi honekin amaitzea gustatuko litzaziguke:

Eskola Kirolean, neska mutilak jarduera fisiko eta kirolean batera, normaltasunez eta gustura aritzeko une eta espazioak sortzen jarraituko dugu, baina beti ere neska eta mutilek espazio eta une banatuen beharra dutela onartuz eta hauek ere ahalbidetuz.